

TOLOSALDEA / Galtzaundi Euskara Taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu eskualdean maiatzean

TOLOSALDEA. DV. Galtzaundi Euskara Taldeak hainbat kultur ekitaldi antolatu ditu maiatzerako. Txikienei zuzendurikoak izango dira gainera: ipuin kontaketak eta pailazoen emanaldiak.

Aski ezaguna da Idoia Sanchez eskualdeko gaztetxoaren artean (eta halabeharrez, baita hauen gurasoen artean ere). Aurtengo neguan makina bat herritan zehar ibili da, neguko arratsalde hotzetan umeei ipuinak kontatzen. Eta orain, hemendik aurrera hotz handirik izango ez dugun arren horixe da espero duguna, behintzat) Idoiak kontu kontari jarraituko du. Maiatzerako jada baditu hainbat hitzordu finkatuta. Hilaren 3an bi herri bisitatuko ditu: 17:00etan Orendaingo liburutegian arituko da, eta geroxeago, 18:15ean, Baliarraingoan. Maiatzaren 8an, berriz, Berrobiko liburutegian izango da 18:00etan.

Korri, Xalto eta Brinko

Korri, Xalto eta Brinko pailazoak ere izar handiak ditugu jada txikienean artean. Eskualdean hainbat emanaldi eman zituzten igaro berria dugun neguan, besteak beste, Alegiako Azaro Kulturean, eta azken egunetan, ere lanean ikusi ditugu; Bidegoianen izan ziren pasa den astean.

Maiatzean ez omen dute hauek ere geldi egoteko asmo handiegirik, eta hilaren hasierarako badute jada emanaldi bat hitzartua. Datorren maiatzaren 4ean, Orendaingo liburutegian ikuskizuna eskainiko dute 17:30ean.